- Vermesan, O., Friess, P., «Building the Hyperconnected Society, IoT Research and Innovation Value Chains, Ecosystems and Markets». River Publishers. [Online]. Available: [http://www.internet-of-things-research.eu/pdf/Building\\_the\\_Hyperconnected\\_Society\\_IERC\\_2015\\_Cluster\\_eBook\\_978-87-93237-98-8\\_P\\_Web.pdf](http://www.internet-of-things-research.eu/pdf/Building_the_Hyperconnected_Society_IERC_2015_Cluster_eBook_978-87-93237-98-8_P_Web.pdf)
- Verne, J., «Michel Strogoff», Pierre-Jules Hetzel, 1876.



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza  
Politika eta Kultura sailburu Cristina Uriarte  
andreaaren mintzaldia

Intervención de la consejera de  
Educación, Política Lingüística y Cultura del  
Gobierno Vasco, Cristina Uriarte







Errektore jauna,  
Herri agintariak,  
idazkari nagusia,  
Astorga Burgo doktore andrea,  
irakasle eta ikasleak,  
administrazio eta zerbitzuetako  
langileak,  
jaun-andreak,  
egunon guztioi

Gaurkoa egun garrantzitsua da bai Jaur-laritzarentzat, bai gure Unibertsitate pu-blikoarentzat.

Dakizuenez gure Lehendakaria izaten da normalean ekitaldi hau presiditzen duena. Baina oraingo honetan ezinezkoa izan zaio etortzea eta niri dagokit bere ordez ekitaldi honetan hitza hartzea. Esan beharra daukat, niretzat benetan pozgarria dela une berezi hau zuokin guztiokin partekatu ahal izatea.

Izan ere, aurtengoa ekitaldi berezia da; ikasturte berriari hasiera emateaz gain, le-gealdiari bukaera emango diolako. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak bertan dira eta horiekin bukatzen da oso bizia, emankorra eta interesgarria izan den le-gealdi hau.

Ezer baino lehen, Euskal Herriko Uniber-sitatean ere hauteskundeak izango dira. 2012an ospatu ziren UPV/EHUko errektore-a aukeratzeko azken hauteskundeak. Orain, 4 urte geroago, hauteskunde be-riak deitu beharko dira.

Etapari bati amaiera emateko ordua heldu da eta, nola ez, etapa horretan egindako lan eta esfortzu guztia eskertzeko unea da. Beraz, gure esker onak Errektoreari eta be-ronen gobernurako taldeari egindako lan eta esfortzu guztiagatik.

Euskal Herriko Unibertsitateak marko iraunkorra eta egonkorra dauka hiru ha-markada luzeetan, ekinaren ekinez eraiki-tako oinarri sendoei esker.

Aurrera begiratzen jarraitu behar dugu, baina beti ere atzean uzten duguna kon-tutan izanik. Iraganari behatu, etorkizuna ikusteko.

Jaur-laritzatik Unibertsitatearekin batera lan, esfortzu eta apustu sendoa egin dugu urte guzti hauetan Euskal Herriko Uniber-sitatearen alde, pertsona guztiei zuzen-dutako kalitatezko unibertsitatea bermat-zeko. Batzuetan une zoragarriak bizi izan ditugu, beste batzuetan ibilbidea malka-ragoa izan da, baina beti ere helburu argi batekin aurrera ekin diogu, gure herriare-kiko konpromisoari helduz.

Azken urte hauek oso zailak izan dira. Ho-rregatik, bereziki eskertzekoa da, guztion artean egindako esfortzua eta erakutsi-tako erantzukizuna.

Krisialdiak arlo guztietan izan du nola-baiteko eragina. Ondorioz, beharrezkoa izan zaigu egoera berri batera egokitzea, inoiz baino konpromiso, erantzukizun eta zorrotasun handiagorekin aritu be-har izan gara. Benetan ez dela erraza izan.



Krisialdi ekonomikoa alde batetik, eta Espainiako Gobernuaren politika alde-  
rraiak eta araudi atzerakoiak bestetik, ez  
dira batere lagungarriak izan. Hauek gure  
unibertsitatearen garapena baldintzatu  
dute nolabait, hainbat arloetan: adibidez,  
Irakasleen kontratazioa, ibilbide akade-  
mikoaren garapenean edo ikasketa es-  
kaintzaren egiturari, besteak beste.

Baina hala eta guztiz ere, zailtasunak egon  
direla onartuta, gauzak oraindik hobetu  
daitezkeela aitortuta, harro esan de-  
zakegu, egindako esfortzu eta elkarlanari  
esker, egoera zail horri aurre egin diogula  
eta gaur Euskal Herriko Unibertsitateak  
kalitatezko zerbitzua eskaintzen jarraitzen  
duela.

Legealdi honetan izan dugun apustua ar-  
gia izan da. Pertsona helburu.

Nuestro compromiso ha sido claro a favor de  
una educación superior inclusiva y equita-  
tiva, una educación superior enmarcada en  
Europa.

El pueblo vasco ha mantenido y mantiene  
una fuerte vocación europea, también en el  
ámbito de la formación superior. Y esta vo-  
cación europea se pone de manifiesto en  
términos de una educación superior en Eus-  
kadi con una fuerte relación con el resto de  
países europeos, en la formación, en la in-  
vestigación, en la transferencia, en las opor-  
tunidades para formarse y desarrollarse.

Una educación superior que da cabida a to-  
das las personas, con independencia de sus  
circunstancias personales, económicas o  
sociales, acogiendo a alumnado y personal  
de otros países europeos en un modelo en  
el que nuestro alumnado y personal tam-  
bién disfruta de esas mismas oportuni-  
dades, como parte de un amplio sistema universi-  
tario europeo.

Y en ese entorno el proyecto de la universi-  
dad pública del país vasco es indispensable,  
tanto dentro de Euskadi, como para Euskadi  
en el contexto europeo e internacional. Así  
pues, la UPV/EHU es una prioridad para este  
Gobierno y para el País Vasco.

Desde el Gobierno Vasco hemos realizado un importante esfuerzo presupuestario para dotar la financiación que garantiza la sostenibilidad de la universidad pública y de su proyecto, así como para desarrollar políticas dirigidas a apoyar el sistema de formación e investigación en Euskadi en el que la universidad desarrolla su labor,

- desarrollando una política universitaria y científica efectiva en Euskadi,
- preservando el sistema general de becas,
- manteniendo el costo de las tasas académicas y
- apoyando la estabilidad de los trabajadores, entre otras cuestiones.

Nuestro compromiso con la financiación y sostenibilidad con la universidad pública ha venido a través de la garantía de la financiación basal y en base a objetivos, de la mano del Plan Universitario 2015-2018, así como del desarrollo de una política científica que persigue garantizar la sostenibilidad de los grupos de investigación, y la formación, retención y atracción de investigadores e investigadoras con criterios de excelencia internacional.

El Plan universitario está basado en 2 principios rectores, la proyección internacional y la especialización.

Un plan prudente, flexible y realista, que nos permite garantizar la contratación de personas y avanzar en los tres pilares de la universidad, como son la formación, la investigación y la transferencia.

Y esto se debe hacer compartiendo objetivos y activando las potencialidades de la Universidad. Ese es el espíritu del Plan Universitario. Un Plan por el cual el Gobierno Vasco aporta a la Universidad del País Vasco

1.200 millones de euros que contribuyen a seguir avanzando hacia la excelencia.

Este plan apuesta por la formación, por la calidad, por la excelencia en la investigación y su transferencia a la sociedad realizada desde la universidad; ámbitos en los que la UPV/EHU es especialmente activa y relevante para el desarrollo social y económico de Euskadi.

Pues bien, este plan universitario ha significado que la universidad pública vasca en relación a otras comunidades autónomas haya recibido la mayor financiación pública para desarrollar su proyecto.

En todo caso, resulta necesario abordar nuevas vías de financiación. Un reto en el que nos consta que la UPV/EHU está trabajando ya con ahínco y que esperamos dé sus frutos.

Bestalde, azpimarratu nahi dut, nahiz eta Espainiako Gobernuak Madrildik ezartzen dizkigun oztopoak, errekerimenduak eta gure konpetentziak urratzea beste helbururik ez duten errekurtsio judizialak ugari izan, Eusko Jaurlaritzak gure eskumenak defendatzen eta babesten jarraituko duela. Helburu argi batekin...: euskal hezkuntza eta unibertsitate sistemaren kalitatea eta ekitatea bermatzen jarraitzea.

Por ello, a pesar del empeño del Ministerio en que los umbrales para obtener la beca sean más elevados, de manera que un número de personas relevante dejaría de percibirla; como digo, a pesar de todos los obstáculos externos que tienen como objetivo minar nuestras competencias, Euskadi, este Gobierno, seguirá apostando por un modelo de becas que llegue a todos los estudiantes que lo necesitan.

Un número que hoy día supera los 11.300 estudiantes.

Y les digo más, este Gobierno lo seguirá haciendo incluso en un escenario en el que prosperen esos recursos, ¡estén seguros de ello! Buscaremos la manera de seguir desarrollando nuestra competencia, apostando por nuestro propio sistema de becas. Lo consideramos imprescindible y necesario.

Hemos mantenido las tasas académicas en un nivel mínimo, una cuestión que implica un esfuerzo para el Gobierno y para la propia universidad. Y es que en este contexto económico complicado hemos optado por realizar ese esfuerzo con más motivo; se ha impuesto la tesis de que las familias vascas hacen un esfuerzo que debemos corresponder cuando apuestan porque sus hijos e hijas se eduquen en la universidad.

También hemos mantenido un compromiso decidido con el personal docente e investigador y con el personal de administración y servicios. Porque somos conscientes de que vosotros sois un pilar fundamental de la Universidad del País Vasco y como no, de la Educación Superior en Euskadi, y por supuesto la mejor garantía para el éxito de la misma.

En ese sentido, este año el Gobierno Vasco ha autorizado la Oferta Pública de Empleo que incluye la dotación de 44 plazas de PAS y 97 plazas dirigidas al PDI, además de una promoción interna dirigida a dotar 20 Cátedras de Universidad, una apuesta limitada por empeño Ministerial y que, por tanto, requiere seguir realizando OPEs de manera regular en los siguientes años.

Soy consciente de las dificultades para la estabilización del personal de la universidad, una cuestión que ocurre también en otros ámbitos públicos. Muchas de estas dificultades tienen de nuevo un origen externo, es lamentable que se nos limite en lo normativo, que se recurra una y otra vez a hacer ta-

bla rasa, que se impongan la homogenización con el resto, ¿por qué? O, mejor dicho, ¿para qué?

La carrera profesional en la universidad es demandante y extremadamente larga, y además está plagada de requerimientos y dificultades normativas que dificultan la incorporación de personal a la plantilla.

Creo que esas dificultades deben superarse, y entiendo que las claves para abordar esta cuestión se centran en el trabajo conjunto, en la colaboración entre las instituciones, en lo que compete a la parte normativa, pero sobre todo en lo que compete a compartir objetivos.

Eusko Jaurlaritzaren erronkarik nagusienetako bat, unibertsitate publikoaren jasangarritasuna bermatzea da, eta hori, nazioarteko testuinguru guztiz lehiakorrean. Horregatik, pertsonaz hornitu behar da unibertsitatea, bikaintasun maila handiko pertsonaz: bai irakasleen trebakuntzari dagokionean, bai ikerketan, eta baita kudeaketan ere.

Entendiendo, además, que excelente significa con criterios internacionales, es decir, unos criterios que garanticen que la universidad avance con capacidad para competir en el contexto internacional. Y en ese sentido quiero felicitar a la Universidad del País Vasco por su posicionamiento internacional, por quinta vez ha conseguido demostrar en el exterior, en libre competencia con criterios internacionales, que es una universidad de referencia, zorionak, animo eta segi aurrrera.

Pertsonak, helburuak, elkarlana, bikaintasuna, Europa... horiek dira Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUren alde egiten duen apustuaren ardatzak. Apustu hori, esan beharra daukat, krisi ekonomiko gara zail honetan ere burutu ahal izan dugu.



Esan bezala, lan asko egin da. Bidea egin dugu. Eta hainbat erronkei aurre egin diegu, eta jarraituko dugu, zalantzarik gabe, unibertsitatea eta gobernu, biok, elkarrekin, lanari ekiten. Baina oraindik ibilbide luzea daukagu aurretik. Erronka berriez aurkezten zaigun ibilbidea; Ilusioz eta indarrez urratu beharko duguna.

No podemos caer en la tentación de la auto-complacencia. Debemos seguir trabajando duro para afianzar y mejorar nuestra posición en el espacio internacional de educación superior y de investigación.

Se nos presenta un camino ilusionante, con ambiciosos retos que afrontar. La consecución de la excelencia internacional en la


investigación y en la docencia y la transferencia del conocimiento a toda nuestra sociedad son algunos de los retos más importantes a los que debemos afrontar.


Nire azken hitzak gure unibertsitate komunitate osoari eskerrak emateko eta ikasturte berri honetan arrakastarik handiena opatzeko erabili nahi ditut. Ziur nago arrakasta hori zuen lan eta esfortzuarekin lortuko duzuela.

Izan ere, ez dago arrakastarako beste sekreturik. Sekretu bakarra norberaren lana eta esfortzua baita.

Bukatzeko, erretoreari eta bere taldeari eskerrak eman nahi dizkiet lau urte hauetan egindako lanagatik, mila esker.







Unibertsitateko errektore  
Iñaki Goirizelaia  
jaunaren mintzaldia

Intervención del Rector Magnífico  
de la Universidad del País Vasco,  
Iñaki Goirizelaia







Bizkaiko Ahaldu Nagusi jauna,  
alkate jauna,  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura  
sailburu andrea,  
errektoreak,  
beste unibertsitateetako ordezkariak,  
Agintari jaun-andreak,  
irakasleak, ikasleak,  
Administrazio eta Zerbitzuetako  
langileak,  
jaun-andreak

Duela 8 urte errektore bidaiari ekin nio-  
nean eguraldi aldaketa aurreikusten zen.  
Haize bolada onak amaitzear zeuden eta  
krisiaren ipar haize hotza antzematen  
zen, itsas zakarra zetorren eta zerua lai-  
notuz zihoan. Baina guk zeruertza os-  
karbi ikusten genuen, norabidea argi  
baikeneukan. Bidaiari ekin genion eta  
haizea aldatu egin zen, itsasoak gogor jo  
gintuen eta gure barkuak biziki sentitu  
zuen enbata.

Barkuan generaman altxorra, euskal uni-  
bertsitate publikoaren izena, izana eta  
etorkizuna, alegia, kanpoko erasoetatik  
babestu beharreko ondasun nagusia zela  
garbi geneukan. Krisiaz jantzitako ekaitz  
haize haiek unibertsitateetan egindako  
lanaren izen ona kaltetu eta gutxiesteko  
kanpaina ekarri zuten.

2011. urtean, Jose Ignacio Wert ministroak  
unibertsitateen ardura zuen. Ezin hobeto  
gogoratzen dut Salamancako unibertsiti-  
tatean eman zuen lehen hitzaldia. Errek-  
tore guztiok arreta handiaz entzuten ari  
ginelarik esaldi bat bota zuen, ezinbestean  
erne eta adi jarri gintuena. Halaxe esan zi-  
gun: «Unibertsitateak gizartearen aurrean  
galdu duen izen ona berreskuratu behar  
dugu».

Behin iritzi egoera sortuta eta unibertsiti-  
tateak itxuraz zeukan egoera txarra age-  
rian utzita, estatuko gobernuak zenbait  
ekintza burutu zituen, unibertsitateen ga-  
rapena eta zerbitzu soziala hein handi ba-  
tean ukitu eta kaltetu zutenak, karrera  
akademikoa erabat gerarazteraino. Gure  
aburuz, helburua unibertsitate publikoa  
ahultzea zen.

Honez gainera, krisiak unibertsitate mai-  
lako hezkuntza eta ikerkuntzaren arloko  
Eusko Jaurlaritzaren ekintza nabarmen  
baldintzatu du. Azkeneko Unibertsitate  
Plan bietan jasotako ekintza garrantzi-  
tsuak ezin izan dira behar bezala garatu.

Egoera honetan, zertarako balio du uni-  
bertsitateak?

Mundu globalizatu eta aldakor honek  
agertzen dituen erronka garrantzitsuak  
aurrean ditugula, batzuetan unibertsiti-  
tatea ikusi ohi da zenbait arazo zehatzi  
ebazpidea aurkitzeko gune legez. Areago,  
unibertsitateari eskatzen zaio bere jar-  
duna birdiseina dezala, eskari zehatz horri  
egokitzeko.

Hala ere, unibertsitateak eginkizun as-  
koz zabalagoa du eta bere arduren artean  
etorkizuneko profesionalen heziketa eta  
prestakuntza daude. Euskal Herriko Uni-  
bertsitatearen 36 urteotan, 300.000 per-  
tsonatik gora hazi eta hezi dira gurean,  
gizarte, politika eta ekonomiaren arlo

guztietan dihardutenak. Baina, nola hezi behar ditugu geure ikasleak?

Onespen zabala duen heziketa prozesu batekin asmatzea konplexua da. Jakina, hautatu duten lanbidean beharko dituzten jakintza eta konpetentziak landuz heziketa sakona ematen diegu. Baina hau ez da gure helburu bakarra.

Ikasleak bizitza osoan zehar lan egiteko gai izan daitezen hezten ditugu eta, horretarako, pertsona jantziak hezi beharra dugu. Gure ikasleei jakin eta ikasteko grina piztu behar diegu, ulertzeko gogoia, jakintzarekiko pasioa, lanarekiko konpromisoa... Egungo interpretazioak ezbaian jar ditzaten, jarrera kritikoa izan dezaten, argumetatzen ikas dezaten egiten dugu lan.

Taldean lan egiten, ekimenean, berdintasunaren defentsan irakasten diegu, bai eta kultur aniztasuna eta inklusioa gizartearen funtsezko balioak direla ere. Giza balio unibertsalak ulertu eta ekintza orotan sustatu ditzaten egiten dugu gure ahalegina.

Herri baten ondorengoak direla irakasten diegu, berezko kultura eta hizkuntza dituen, normaltasunez erabili behar duguna. Hau guzti hau, ahaztu barik munduan egon beharra dugula; garena, egiten duguna zein izan nahi duguna komunikatzen jakin behar dugu hemen zein nazioarteko testuinguruan. Gure sustraiak non dauden jakinik, nazioarteko presentzia areagotzeko kultura sustatzen dugu.

Heziketa prozesu hau aurrera eramateko azpiegitura egokiak sortu ditugu hiru campusetan. Baina asko egin baditugu ere, oraindik badugu egitekorik. Adibidez, Basurtuko Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria behar dugu, gure ustez, herri honen osasun publikoaren etorkizunerako funtsezko azpiegitura dena.

Hala eta guztiz ere, jakintzaren heziketa trinkoaz gainera, zalantza bakoa da hezkuntza praktikoaren alde egin dugun apustua. 2007. urtean 6.000 ikasle bazi- ren praktikak egiten zituztenak, 2015ean 10.000 izan dira, atzerrian egin ahal diren praktika eskaintza anitza barne. Estatuan lehenengo unibertsitatea izan gara txandakako prestakuntzaren bidezko gradu oso bat eskaintzen, UPV/EHUri atxikitako IMH ikastegia bitarte izanda.

Ikasle titulatuak egindako 40.000 inkesta baino gehiago analizatu ondoren, prestakuntza praktiko hau egin duten ikasleek lehenago eta proportzio handiagoan aurkitzen dutela lanpostua egiaztatu dugu. Ikasleen enplegarritasuna hobetu nahi bada honako hau biderik onenetakoa dugu. Hori ikusita, hezkuntza praktiko eta dualaren eskaintza hobetzen jarraitzea da gure erronketako bat. Bide honetan erantzukizuna ez dagokio soilik unibertsitateari, eragile anitzen inplikazioa behar du nahitaez, besteak beste, enpresarien elkar- teak, sindikatuak, Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak.

Hona gaurko nire aurreneko eskaria: ekimen honetan partaide guztien segurtasun juridikoa bermatzeko eta konpromisoa errazteko lege oinarria eratu behar da. Gonbite egiten dizuet elkar lanean ari gaituzten, hautabideak esploratu eta unibertsitate hezkuntza praktiko eta txandakakoari berezko markoa defini diezaio- gun.

Goi mailako hezkuntzari dagokionez, Eus- kal Herriko Unibertsitateak lagun oro- rentzat ditu ateak zabalik. Goi mailako ikasketak burutzeko aukera berdinta- suna bermatzen duen erakunderik ga- rrantzizkoena da ezbairik gabe, gurean ikasteko bete behar den baldintza bakarra beharrezko maila akademikoa izatea da.



Aukera berdintasuna UPV/EHUren funtsezko printzipioetako bat da.

Gai honekin jarraituz, gurea unibertsitate inklusiboa dela nabarmendu nahi dut. 2010-2011 ikasturtetik 2015-2016era arte ezgaitasunaren bat duten 506 ikasle berri sartu dira. Eta gurean hezteaz gain, laneratze programa berezituak jorratzen ditugu ikasle hauentzat. Inklusioari dagokionez unibertsitate komunitateari eskaera bat, ikerketan eta irakaskuntzan bidea errazten jarrai diezaiegun.

La UPV/EHU también tiene una especial responsabilidad en hacer efectivo el derecho a la igualdad. La igualdad de hombres y mujeres en nuestra actividad docente, investigadora o de gestión es un indicador más de excelencia universitaria. Todavía tenemos recorrido, sin duda, pero como institución pública de educación superior debemos ser vanguardia en esta materia.

Al mismo tiempo, también debemos actuar con la máxima responsabilidad ante nuestro alumnado y ante la sociedad vasca. Os pido que tengamos una actitud especialmente activa en todo tipo de actuaciones docentes, de investigación o de divulgación que ayuden a hacer efectivo el principio de igualdad y a colaborar en la eliminación de cualquier forma de violencia de género o de desigualdad en todos los rincones de nuestra sociedad.-

La inclusión y la igualdad son indicadores de excelencia pero hay una actividad que realiza la UPV/EHU sin la cual nuestra universidad perdería la que a mi entender es una de sus razones de ser más importante. Me refiero a la normalización del uso del euskara como lengua de rango universitario.

La Universidad del País Vasco es la universidad del euskera. Hoy día, y gracias en gran medida a la UPV/EHU, el euskera se ha con-

vertido en una lengua de nivel universitario. Cada año se ofrecen más de 200.000 horas de clase en lengua vasca (20.647 créditos y 3.115 asignaturas). La mitad del alumnado están matriculado en la línea de euskera, y la capacitación de nuestro profesorado y personal de administración y servicios nos permite responder hoy a la demanda de formación universitaria bilingüe de la sociedad vasca. ¿Quién imaginaría esta situación hace solo 36 años?

Hemos realizado avances extraordinarios en el desarrollo de docencia, investigación, tesis doctorales y libros, preparando nuevos corpus lingüísticos y nuevas herramientas... Pero todavía no hemos conseguido garantizar el desarrollo de toda la vida académica en euskera. Por lo tanto, comprendemos y agradecemos las exigencias que en este sentido realiza el alumnado, pues en ellas se encuentra el desafío del futuro. En esa labor, necesitamos la ayuda de todos y de todas: por eso pido a toda la comunidad universitaria que utilice el euskera con normalidad.

A la vista de esta situación, es el momento de que representantes del mundo político y de la sociedad planteen una firme apuesta por una sociedad trilingüe, ofreciendo al euskera un cuidado especial y todas las garantías. La UPV/EHU este año da un nuevo paso ofertando su primer grado trilingüe en educación infantil.

He hablado hasta ahora de la preparación de alto nivel que ofrece la UPV/EHU. Aún así, a veces, oímos que sobran personas universitarias. Para quienes así opinan, la inversión que se realiza en formación universitaria es excesiva y... ¿para qué?

Los números no dicen eso. La tasa de ocupación de nuestros egresados y nuestras egresadas se ha recuperado notablemente en los últimos años. Nos hemos acercado a los valores que teníamos en 2007 y, conside-

rando la tasa mínima de ocupación durante la crisis, hemos recuperado más de 10 puntos. En el año 2015 se llegó al 82,9% de tasa de ocupación entre las personas graduadas en el año 2012, en un escenario de incremento notable de la tasa de actividad, alcanzando un 95,6% entre el citado colectivo. Buenas noticias, sin duda, pero aún queda mucho por hacer.

Si queremos ser en el futuro una sociedad con buena calidad de vida y que compita a nivel internacional, tenemos que prestar una atención especial a la evolución de tres indicadores fundamentales: inversión en educación en general, y en especial en el ámbito de las universidades; inversión en I+D+i; y peso del sector industrial en el Producto Interior Bruto.

Los estados que hacen una apuesta firme y permanente en esos ámbitos tienen una tasa de empleo más alta. Otros países, donde no se ha hecho esa apuesta, no tienen perspectiva de alcanzar los niveles previos a la crisis antes de 2025. La Comunidad Autónoma Vasca, de momento, se halla en este segundo grupo.

Por ese motivo me animo a hacer una propuesta concreta: un pacto a medio y largo plazo para garantizar la evolución positiva de los indicadores señalados. El objetivo sería que nos acercáramos a los valores de las regiones de referencia en Europa. Tengo presentes, por ejemplo, Baden Wütemberg o Turingia en Alemania, y Estiria en Austria. Les pido, con humildad y con firmeza al mismo tiempo, que ese gran acuerdo esté entre las prioridades para la próxima legislatura.

Quiero referirme a la innovación y al papel de la universidad en este ámbito. La innovación en la industria es un proceso intrínsecamente empresarial y, a mi entender, responsabilidad de las empresas.



Sin embargo, la universidad facilita la innovación tanto en el ámbito empresarial como en el social. La innovación está condicionada al menos por dos factores: el conocimiento necesario y la calidad y actitud del capital humano involucrado en todos los niveles. En estos dos ámbitos el papel de la universidad es clave.

Hablando de conocimiento, muchas veces nos preguntamos cómo lo debemos crear en la universidad y con ese objetivo ¿cómo debemos investigar?

La calidad investigadora no se crea por decreto. El éxito de la investigación en cualquier ámbito depende de una cultura y actitud personal donde la persistencia, la constancia, la curiosidad, el escepticismo, lo inesperado, la creatividad o la genialidad juegan un papel fundamental. Los grandes descubrimientos de la humanidad han surgido de una investigación en libertad, sin límites a la creatividad.

La buena investigación necesita de una apuesta prolongada en el tiempo. Necesita atención, confianza y cuidado.

La apuesta por la buena investigación es siempre a largo plazo y sus resultados se utilizan siempre. El problema, y también la oportunidad, es que a veces dichos resultados no se utilizan en el lugar donde se han desarrollado. Por eso, trasladar a nuestra sociedad los resultados de la investigación que se hace en cualquier país también es un objetivo. Para ello hace falta gente cualificada, y aquí nuestros doctores y nuestras doctoras tienen un papel clave.

También en este apartado les propongo que apuesten por la universidad investigadora de nuestro país, con un porcentaje específico del PIB dedicado a la investigación universitaria, asegurándola para un periodo de tiempo superior a una legislatura. Sigamos pensando en programas de atracción de talento, pero cuidando el que ya tenemos en casa.



Será difícil que capturemos talento internacional si no sabemos cuidar el propio, que es mucho y bueno. Por supuesto, pidan cuentas a la universidad y, si no cumplimos, retiren ese apoyo.

Por eso debemos seguir fortaleciendo la colaboración entre universidad y representantes del entorno socioeconómico. Cada vez que oigo la frase «la universidad está muy lejos de la sociedad» parece que retrocedemos a los mensajes de hace veinte años, sin reparar en la gran evolución de estos últimos años y en lo que ya hacemos día a día.

Existe una gran relación entre la Universidad del País Vasco y nuestro entorno. Realizamos multitud de proyectos de investigación compartidos: hemos creado un parque científico; tenemos centros de investigación y desarrollo con participación de empresas, instituciones y entidades sociales; aulas de empresa; 10.000 prácticas; formación dual; especialistas de la UPV/EHU aparecen dia-

riamente en los medios de comunicación; organizamos congresos, seminarios, charlas de divulgación, EHUalumni...

En este ámbito también voy a hacer una petición. Les pido, especialmente a quienes creen que no damos respuesta a sus necesidades, que se acerquen a la universidad y que nos hagan propuestas. La UPV/EHU tiene que seguir mejorando y para ello también pido a nuestra comunidad universitaria que siga siendo receptiva y que muestre siempre disponibilidad para responder a las necesidades que nos planteen, ya sean de investigación, divulgación, crítica, opinión o asesoramiento.

Permítanme hacer otra propuesta en este ámbito: legislen de forma adecuada la figura del profesorado para que pueda realizar estancias en otras entidades sociales y empresariales, sin perder su condición de académico, y facilitar, del mismo modo, la estancia docente e investigadora del profe-



sional en la universidad. Hagan que esta actividad resulte beneficiosa para la entidad que cede su profesional a la universidad por un tiempo y para la universidad que cede algún especialista.

Termino el apartado dedicado a la investigación mostrando mi satisfacción por el camino recorrido en los últimos años. Somos una universidad investigadora reconocida internacionalmente, con presencia estable en el ranking de Shanghái, el más prestigioso del mundo. Hoy nuestra comunidad universitaria asume con orgullo su papel como el agente investigador más importante de Euskadi.

Tenemos grupos de investigación excelentes y de prestigio internacional en todas las áreas de conocimiento. Contamos con 272 grupos de investigación. En 2015 realizamos 2.736 publicaciones internacionales de prestigio frente a las 1.600 de hace ocho años, alcanzando un índice H de 171 y un total de 447.630 citas. Defendemos cada año más de 500 tesis doctorales y en la última década hemos creado 137 empresas y 1.061 puestos de trabajo. Tenemos que mejorar, pero el recorrido es significativo y nuestros resultados deben generar confianza en la sociedad y en sus representantes.

Nuestra mejora como universidad investigadora tiene también reflejo en la actividad docente. Si analizamos los rankings que evalúan la calidad docente observamos que las mejores universidades investigadoras también son las mejores en docencia. El alumnado de la UPV/EHU evalúa anualmente, mediante encuestas, nuestra actividad docente y la nota que nos pone es un 3,9 sobre 5, es decir, un buen notable. Debemos seguir mejorando, por supuesto, pero es un buen resultado.

En las sociedades desarrolladas, la divulgación científica se ha convertido en uno de

los quehaceres básicos de la universidad. En este ámbito nos hemos convertido en referente, tanto a nivel estatal como a nivel internacional. El objetivo es, entre otros, colaborar en la formación de una sociedad madura. Una sociedad que conoce los fundamentos de la ciencia es una sociedad más culta, más crítica y, en consecuencia, más libre. Conseguir una sociedad instruida supone un enorme valor añadido de cara al desarrollo futuro en los ámbitos económico, político o cultural. Por eso, hago un llamamiento a toda la comunidad universitaria para que tome parte activa en las tareas de reflexión crítica, creación de opinión y divulgación científica.

Cada vez que la Universidad del País Vasco materializa cualquiera de estas acciones lo hace con una dimensión internacional. Somos una universidad que está enraizada en la sociedad vasca pero, del mismo modo, trabajamos día a día con el objetivo de ser referencia internacional en todos los ámbitos académicos.

La UPV/EHU es una de las instituciones vascas más importantes a la hora de situar en el mundo a Euskadi, Euskal Herria o Vasconia. Cualquier nación, si quiere tener presencia a nivel mundial, necesita una universidad que sea conocida y que se proyecte al exterior. Esa universidad es la nuestra. Cada año tenemos más estudiantes extranjeros de grado o de posgrado, y cada vez hay también más estudiantes de la UPV/EHU que van a universidades de otros países. Nuestra actividad académica se materializa en más de 50 países diferentes y, en los últimos años, la movilidad del alumnado se ha incrementado en un 20%. Podríamos decir que en la Universidad del País Vasco siempre luce el sol.

En este proceso de internacionalización se deben destacar la Red Latinoamericana de Másteres y Doctorados y el Campus Eurorre-

gional. Estamos desarrollando este último proyecto transfronterizo en colaboración con la Universidad de Burdeos. Se trata de un proyecto que reúne a más de 100.000 estudiantes y a 12.000 profesionales. Tampoco podemos olvidar la red de la Diáspora Vasca Académica, que actualmente estamos diseñando y materializando.

La UPV/EHU está alumbrando en estos últimos años una interesante red de relaciones internacionales y, por supuesto, está a su disposición. Utilícela.

Erronka eder baten aurrean gaude: XXI. mendeko nazioarteko unibertsitate ikerlari bezala sendotzea, egun XIX. mendera begira indarrean dagoen arautegia erabiliz. Ez da lan erraza izango.

Nazioarteko testuinguruan, egungo Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak ez du etorkizunari begira dagoen unibertsitate baten euskal gizartearen goi mailako hezkuntzaren eta ikerketaren premiei, era egokian erantzuteko behar dituen lanabesak sortzeko eta garatzeko aukerarik ematen.

Ez pentsa, autokritika ere egin nahi dut. Egia da gaurko marko legalak oso aukera gutxi ematen diola unibertsitateari kudeaketa akademikoa desberdina egiteko, baina batzuetan ez dugu asmatu ematen dituen aukera horiek modu egokian erabiltzen.

Hau honela, lege berri baten beharra aldarrikatu nahi dut berriro. Agintaldi honen hasieran esan nuen eta amaieran ere gauza bera eskatzen dizuet. Zuei, gizartearen ordezkari, legealdi berri honetan unibertsitateen lege berri bati ekitea eskatzen ausartzen naiz berriro. Hona hemen zenbait burutazio:

1. Ikerlari eta irakasle onenak kontratatu behar ditugu. Horretarako, lan

kontratadunak eta funtzionarioak izateaz gain irakasle eta ikerlarien irudi berri eta erakargarrien premia daukagu.

2. Merituetan oinarritutako ordainsari duinari buruzko politika berria behar dugu.
3. Unibertsitatearen gobernantzari dagokionez eredu berrietan sakontzen jarraitu behar dugu unibertsitate komunitatearekin elkarlanean.
4. Gobernantzarekin lotuta Gizarte Kontseiluaren sakoneko aldaketa behar dugu.
5. Hezkuntza eta ikerketa politikek epe ertain luzeko estrategiak eskatzen dituzte. Etorkizunari begira finantziazioa epe ertainera (4-8 urte) guztiz bermatuta dagoen finantzaketa erdua behar dugu, non kudeaketarako malgutasuna eta kontuak emateko prozedura zehatzak finkatzea guztiz beharrezkoa den. Unibertsitate Planaren kontzeptua egokia izan daiteke baina, noski, plana aldatu behar bada alde bien adostasuna behar beharrezkoa litzateke.
6. UPV/EHUk lortzen dituen kanpoko funtsak modu egokian erabiltzeko, beste herrietan daukaten diru funtsa izeneko tresna edo endowment behar dugu.
7. Dohaintza ahalbideratzeko politika fiskal egokia behar dugu.

Unibertsitate politikari buruzko hitzaldia egin gura izan dut etorkizunari begira jarrita. Gaur, inoiz baino gehiago berretsi nahi izan dut zortzi urte hauetan, hainbatetan, errepikatu dudana. Unibertsitatea etorkizuna da. Agian eraiki liteke Euskal Herrirako etorkizun bat unibertsitate publikorik gabe. Nik ez dut uste.


Gaur, 80 urte betetzear direlarik lehenengo euskal unibertsitate publikoa osatu zenetik, Agirre Lehendakariaren lezioa jarraitzea egokia izango litzateke. Sentsibilitate ezberdinak batuz, gerra garaian Euzko Irakastola Nagusia osatzeko apustua egin zuen bezalaxe, gaurko honetan, alderdi politikoek, gazte eta kultur elkarteek, enpresarien erakundeek, sindikatuek eta herri honetako instituzioek guztion unibertsitatearen aldeko epe ertain-luzeko ituna adostu beharko genuke. Nire iritziz, orain da unea. Pasatzen uztea larregizko arriskua litzateke. Erantzukizuna partekatua da. Baina, gure unibertsitatearen etorkizuna, euskal gizarteak, datorren irailaren 25ean hautatuko dituen ordezkarien bitartez, egingo duen apustuak baldintzatuko du hein handi batean. Ausartak izan daitezen eskatu nahi diet, hegoaldeko haizeak bultzatutako amarrak askatu eta lokarriak hautsi eta unibertsitate lege berria egiteari ekin diezaiotela. Gure aldetik, Euskal Herriko Unibertsitatea eraikitzen jarraitzeko geure autokritika eta elkar-lana eskaintzen dizuegu, guztion unibertsitatea, euskal gizartearena eraikitzen jarrai dezagun.

Ikasturtearen inaugurazio ekitaldiko nire azken hitzaldia amaitzear nago. Askok dira

burutik eta bihotzetik pasatzen zaizkidan pentsamenduak eta sentimenduak. Pertsona asko, momentu asko, sentsazio asko... 4 urte eta erdi errektoreorde bezala, 8 urte errektore bezala. Urte hauetan Euskal Herriko Unibertsitateari nire onena eman diot eta barku honetan tripulazio ederrak izan ditut. Nire errektore talde bietako lan-kide guztioi eta bulegoko idazkariei bersarkadarik estuena eta goxoena eman nahi dizuet. Momentu on asko bizi izan ditugu baita batzuetan sufritu ere. Honaino heldu naiz. Barkuak bidai eder hau jarraituko du eta, noski, patroia ona izango du. Unibertsitate komunitate osoari eskerririk asko. Erakunde publiko eta pribatu, agintari eta gizarte ordezkari guztien laguntza ere eskertu nahi dut. Zuekin guztiekin lan egitea ohore eta plazer handia izan da. Denon artean lan oso ona egiten ari gara. Pozik eta ilusioz EHUgintzan jarrai dezagun, merezi du eta. Poeta izango banintz amaitzeko poesia eder bat itxaroten egongo zinatekete. Baina ez naiz poeta. Alai noa, soseguz joan nahi dut, patroia postua utzita marinel bihurtuz, lasai.

Irekitzat ematen dut UPV/EHUko 2016-2017 ikasturtea, eta ez ahaztu:

Eman Ta Zabal Zazue

















eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea